

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2006/1717/EE ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA, 2006ko azaroaren 15ekoa, egonkortasun-tresna bat ezartzen duena.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : “*Reglamento (CE) n° 1717/2006 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 15 de noviembre de 2006, Por el que se establece un Instrumento de Estabilidad*” (*Diario Oficial de la Unión Europea, DO L 327/1 de 24/11/2006*)

**2006/1717/EE ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA**

**2006ko azaroaren 15ekoa,
egonkortasun-tresna bat ezartzen duena**

I

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatua, eta bereziki haren 179. artikulua 1. paragrafoa eta haren 181. A artikulua, aztertu dituzte,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz ¹

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Erkidegoak ematen die laguntza ekonomiko, finantzario, tekniko, humanitario eta makroekonomiko handiena hirugarren herrialdeei. Europar Batasunaren (aurrerantzean "EB" deituko zaio) atzerri-ekintzaren helburu nagusietako bat da oraindik baldintza egonkor batzuk sustatzea, gizakiak eta ekonomia garatzeko eta giza eskubideak, demokrazia eta oinarriko askatasunak sustatzeko. Erkidegoak atzerri-laguntzako bere tresnen bitartez parte hartzen du atzerri-ekintza horretan. EBko atzerri-ekintzaren eraginkortasunari buruzko Ondorioetan, 2004ko azarokoetan, honako ondorio hau atera zuten Kontseiluak eta estatu kideetako gobernuetako ordezkariak, Kontseilu Europarraren baitan: bakea, segurtasuna eta egonkortasuna, eta giza eskubideak, demokrazia eta gobernantza ona ezinbesteko elementuak dira hazkunde ekonomikoa iraunkorra izateko eta pobrezia desagerrarazteko.

(2) Indarkeriazko gatazken prebentziorako EBko programak, Kontseilu Europarrak berretsiak, azpimarratzen du EBko atzerri-harremanen helburu nagusietako bat dela gatazken prebentziorako lanean jarraitzeko EBren konpromiso politikoa; adierazten du, baita ere, Erkidegoaren garapenerako lankidetzako tresnek lagun dezaketela helburu hori lortzen, eta EB munduko eragile bihurtzen.

(3) Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuko (aurrerantzean, "EE Eratzeko Tratatua") 177. eta 181. A artikuluetan adierazitako helburuak lortzeko Erregelamendu honen esparruan hartutako neurriak osagarriak izan daitezke, eta koherentzia

izan behar dute EBk atzerri-politikako eta segurtasun komuneko helburuak lortzeko V. tituluaren esparruan hartutako neurriekin, bai eta Europar Batasunaren Tratatuko (aurrerantzean "EBko Tratatua") VI. tituluaren esparruan hartutako neurriekin ere. Kontseiluak eta Batzordeak lankidetzan jardungo dute koherentzia hori bermatzeko, bakoitzari dagozkion botereen arabera.

(4) Kontseiluak eta estatu kideetako gobernuetako ordezkariak, Kontseilu Europarraren baitan, Europako Parlamentuak eta Batzordeak 2005eko azaroaren 22an adostutako Garapenari buruzko Europako kontsentsuak, eta 2005eko abenduaren 15eko eta 16ko Kontseilu Europarrak onartutakoak, adierazten du Erkidegoak, bere erakundeei dagozkien eskumenen esparruan, prebentzio globalerako planteamendu bat egingo duela, Estatuaren hauskortasunaren, gatazken, hondamendi naturalen, eta beste krisi batzuen prebentziorako. Erregelamendu honek helburu hori lortzen lagundu behar du.

(5) Kontseilu Europarrak Europako segurtasun-estrategia onartu zuen 2003ko abenduaren 12an.

(6) Terrorismoaren aurkako borrokari buruz Kontseilu Europarrak 2004ko martxoaren 25ean egindako adierazpenak eskatu zuen atzerri-laguntzarako programan jasotzeko terrorismoaren aurkako borrokaren helburuak. Gainera, delinkuentzia antolatuen prebentziorako eta kontrolerako EBko milurtekoko estrategiak, 2000ko martxoaren 27an Kontseiluak onartutakoak, eskatzen du hirugarren herrialdeekin lankidetzaren estuagoa izan dadila.

(7) Krisi baten ondoren egonkortze bat egon dadin, nazioarteko komunitateak konpromiso malgu bat mantendu behar du, krisiaren ondorengo lehenengo urteetan batez ere, transizio-estrategia integratuetan oinarrituko dena.

(8) Krisiaren eta ezegonkortasun politikoaren garaietan laguntza-programak egikaritzeko, neurri espezifikoak hartu behar dira, erabakiak hartzerakoan eta aurrekontuetako diru-izendapenak egiterakoan malgutasunez jardungo dela bermatzeko, bai eta neurri indartuak hartu ere, aldebiko laguntzarekin eta funts-hornitzaileen funtsak biltzeko mekanismoekin koherentzia egon dadin; neurri horiek barne hartzen dute ahal publikoko eskumenak delegatzea, zeharkako

⁽¹⁾ Europako Parlamentuaren irizpena, 2006ko uztailaren 6koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko azaroaren 7koa.

kudeaketa zentralizatuaren bitartez.

(9) Europako Parlamentuaren ebazpenak eta, Batzordeak larrialdi-laguntzaren, birgaitzearen eta garapenaren arteko loturaren ebaluazioari buruz egindako komunikazioa aztertu ondoren, Kontseiluaren ondorioek azpimarratzen dute, krisi-testuinguruan, Erkidegoko zenbait tresna desberdinekin finantzatutako lanek lotura bat izan behar dutela.

(10) Aipatutako lan horiek eraginkortasunez eta une egokian lantzeko, baliabide eta finantza-tresna espezifikokoak behar dira, laguntza humanitariorako eta epe luzeko lankidetzarako tresnen osagarri izango direnak. Laguntza humanitaria emateko, 1996/1257/EE Erregelamendua, Kontseiluarena, 1996ko ekainaren 20koa, laguntza humanitarioari buruzkoa, hartuko da kontuan ⁽¹⁾.

(11) Atzerri-laguntzarako Erkidegoaren tresnen bitartez ezarritako lankidetzaren politikaren esparruan, herrialde bazkideekin adostutako neurriez gainera, munduko eta nazioarteko alderdi garrantzitsuei, egonkortasuna apurtzeko gaitasuna dutenei, zuzendutako laguntza emateko gai izan behar du Erkidegoak.

(12) Atzerri-laguntzaren eremuan, Erkidegoaren —Batzordeak ordezkaturak— eta estatu kideen arteko lankidetzaren operatiboa indartzeko norabideek, 2001ekoek, azpimarratzen dute EBko atzerri-laguntzaren koordinazioa areagotu behar dela.

(13) Erregelamendu honek finantza-zuzkidura bat ezartzen du 2007-2013 aldirako. Hori izango da erreferentzia pribilegiatua Aurrekontu Agintaritzarentzat, Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak aurrekontu-diziplinari buruz eta finantza-kudeaketa onari buruz maiatzaren 17ko erakunde-arte Akordioaren 37. puntuan ezarritakoari jarraituz. ⁽²⁾.

(14) Egokia da Erregelamendu hau betearazteko derrigorrezko neurriak onartzea, Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiaren arabera (1999ko ekainaren 28ko Erabakia, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenak gauzatzeko prozedurak ezartzei buruzkoa) ⁽³⁾.

¹ L 163 EO, 1996.7.2koa, 41 or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/1882/EE Erregelamendua (L 284 EO, 2003.10.31koa, 1. or.) aldatu zuen Erregelamendua.

² EO C 139, 2006.6.14koa, 1. or.

³ L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.7.22koa, 11. or.) aldatu zuen Erabakia.

(15) Erregelamendu honen helburua da indarrean dauden Erkidegoko atzerri-laguntzari buruzko zenbait Erregelamenduren aplikazio-eremua betetzea, eta horiek ordezkatzeari; ondorioz, honako Erregelamendu hauek indargabetu egin behar dira.

(16) Kontuan izanda Estatu kideek ezin dituztela behar den moduan lortu Erregelamendu honen helburuak, bertan definitutako eremuetan adostutako alderdi anitzeko erantzun bat behar denez, eta, bertan zehaztutako neurrien alderdi anitzeko izaerari erreparatuta, Erkidego osoko erakundeetatik hobeto lor daitezkeenez, neurriak har ditzake Erkidegoak berak, Tratatuaren 5. artikuluan bilduriko subsidiarioratasun-printzipioari jarraiki. Artikulu horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, helburu horiek lortzeko neurriak hartzera mugatzen da erabaki hau.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

I. TITULUA

HELBURUAK ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua

Helburuak

1. Garapenerako lankidetzarako neurriak hartuko ditu Erkidegoak, bai eta hirugarren herrialdeekiko lankidetzaren finantziorako, ekonomikorako eta teknikorako neurriak ere, Erregelamendu honetan ezarritako baldintzak betez.

2. Aipatutako lankidetzaren helburuei jarraiki, eta EE Eratzeko Tratatuaren ezarritako mugak errespetatuz, honako hauek izango dira Erregelamendu honen helburu espezifikokoak:

a) larrialdi-egoera edo krisi hasiberri batean, egonkortasunari laguntzea, Erkidegoko lankidetzaren eta garapen-politikak eraginkortasunez aplikatzea ahalbidetzen duten oinarriko baldintzak ezartzen edo berrezartzen lagunduko duen erantzun eraginkor bat emanez.

b) hirugarren herrialdeetan Erkidegoaren lankidetzaren politikak aplikatzeko aukera ematen duten baldintza egonkorren esparruan, beharrezko gaitasunak eraikitzen laguntzea, egonkortasuna apur dezaketen munduko eta eskualdearteko mehatxu espezifikoek aurre egin ahal izateko, eta behar adinako prestakuntza bermatzea, krisi-aurreko eta krisi-ondoko egoerei aurre egin ahal izateko.

3. Erregelamendu honen esparruan hartutako neurriak osagarriak izan daitezke, eta koherentzia

izan behar dute EBko Tratatuaren V. eta VI. tituluei jarraiki hartutako neurriekin.

2. artikulua

Erkidegoko laguntzaren osagarritasuna

1. Erregelamendu honetan aurreikusitako Erkidegoko laguntzak osatu egingo ditu Erkidegoko atzerri-laguntzarako tresnekin bat etorritik emandako laguntzak, alegia, lehenbiziko horiekin lotura duten laguntzak. Tresna horien bitartez erantzun egokia eta behar adinakoa eman ezin denean soilik emango da laguntza.

2. Batzordeak bermatuko du Erregelamendu honen baitan hartutako neurriek koherentzia izan dezatela Erkidegoak herrialde bazkidearekiko duen esparru politiko estrategiko orokorrarekin, eta, bereziki, 1. paragrafoan aipatutako tresna horien helburuekin, bai eta egoki diren Erkidegoko beste neurri batzuekin ere.

3. Batzordeak bere jardueren eta estatu kideen jardueren arteko koordinazio estua sustatuko du, Erkidegoko eta herrialdeetako laguntza-neurrien eraginkortasuna eta koherentzia areagotzeko, bai erabakiak hartzeari dagokionez, bai eta jarduerak gauzatzen ari diren lekuan bertan ere. Helburu horrekin, estatu kideek eta Batzordeak informazioa trukatzeko sistema bat ezarriko dute.

3. artikulua

Krisi-egoerei eta krisi hasiberriei erantzuna emateko laguntzak

1. 1. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-zatian aipatutako helburu espezifikokoak lortzeko, Erkidegoak laguntza teknikoak eta finantzarioak emango du honako egoera hauetako bati erantzuteko: larrialdi-egoera, krisi edo krisi hasiberri bati; demokraziarentzat, legeriarentzat eta ordena publikoarentzat, giza eskubideen eta oinarrizko eskubideen zainketarentzat edo herritarren segurtasunarentzat eta babesarentzat mehatxu izango den egoera bati; edo gatazka armatu bat eragin dezakeen, edo dagokion hirugarren herrialdearen edo herrialdeen egonkortasuna era larrian apurtzea eragin dezakeen egoera bati. Neurri horiek erabili ahal izango dira, baita ere, Erkidegoak nazioarteko akordioen oinarrizko elementuei buruzko klausulak arazoitzat aipatu dituenean, hirugarren herrialdeekiko lankidetzak, erabat edo neurri batean, bertan behera uzteko.

2. Eremu hauek landuko ditu 1. paragrafoan aipatutako laguntza teknikoak eta finantzarioak:

a) konfiantza sortzeko, bitartekotzarako, elkarriketarako eta berradiskidetzeko,

nazioarteko eta eskualdeko erakundeek eta eragile estatal eta ez-estatalek egiten dituzten ahaleginei laguntza ematea, laguntza teknikoak eta logistikoa emanez;

b) nazioarteko zuzenbideari jarraiki, nazioarteko agintea duten aldi baterako administrazioak ezartzen laguntzea, bai eta horien funtzionamendua bultzatzea ere;

c) estatuko erakunde demokratikoak eta pluralistak garatzen laguntzea, emakumeek erakunde horietan jokatzeko duten papera areagotzeko neurriak barne; administrazio zibil eraginkorra ezartzen laguntzea, bai eta estatu mailan eta toki-administrazioen mailan horri dagozkion esparru juridikoak ere; botere judizial aske bat ezartzen laguntzea; gobernantza ona, legeria eta ordena publikoa gauzatzen laguntzea, kontrol zibil orokorra indartzeko eta segurtasun-sistema ikuskatzeko lankidetzak tekniko ez militarra barne, bai eta legea betearazteko eta pertsonen, drogen, su-armen eta lehegailuen legez kanpoko trafikoaren aurkako borrokan inplikaturako agintaritzak judizialari laguntzea ere;

d) laguntza ematean nazioarteko zigor-arloko auzitegiei eta nazioko *ad hoc* auzitegiei, egiaren eta berradiskidetzeko batzordeei eta giza eskubideen eta jabetza-eskubideak aldarrikatzearen eta aitortzearen alorrean, salaketan ebazpen juridikorako mekanismoei, nazioarteko giza eskubideekin eta zuzenbideko estatuaren irizpideekin bat etorritik ezarri direnei;

e) laguntza ematea oinarrizko azpiegituren, etxebizitzaren, eraikin publikoen eta aktibo ekonomikoen birgaitzea eta berreraikitzea eta oinarrizko ekoizpenerako gaitasuna hasi ahal izateko neurriei, bai eta jarduera ekonomikoa suspertzeko, enplegua sortzeko eta garapen sozial iraunkor baterako behar diren gutxieneko baldintzak ezartzeko neurriei ere;

f) laguntza ematea desmobilizazioari eta gudari ohiak gizarte zibilean integratzeari, eta, dagokionean, horien aberriratzeari buruzko neurri zibilei, bai eta haur eta emakume soldaduen egoeraren ardura hartzeko neurriei ere;

g) laguntza ematea indar armatuak berregituratzeko gizartean izango dituen eraginak arintzeko neurriei;

h) laguntza ematea, Erkidegoaren lankidetzapolitiken eta horien helburuen esparruan, pertsonen kontrako minek, lehertu gabeko lehegailuek edo abandonaturako lehegailuen hondarrek herritarrengan duten eragin sozioekonomikoari aurre egitera bideratutako neurriei; Erregelamendu honen baitan

finantzatutako jarduerak beren gain hartuko dituzte hezkuntzarekin, biktimei laguntzarekin, minak aurkitu eta kentzearekin eta, horri dagokionez, gordekinak deuseztatzearekin erlazionatutako arriskuak;

i) laguntza ematea, Erkidegoaren lankidetzapolitiken eta horien helburuen esparruan, su-armak legez kanpo erosteak eta erabiltzeak herritarrengan dituen eraginak arintzera bideratutako neurriei; laguntza hori honakoetara mugatuko da: ikuskatze-jarduerak, biktimei laguntzea, kontzientziazio publikoa eta jakintza juridikoak eta administratiboak eta jardunbide egokiak areagotzea.

Krisi edo krisi hasiberri batean, eraginak jasaten dituzten herritarren garapen sozial eta ekonomikorako beharrezko diren baldintzak berrezartzeko behar den neurrian soilik emango da laguntza, 1. paragrafoan aurreikusten den bezala. Ez zaie laguntza emango armen ugalketaren aurkako neurriei;

j) laguntza ematea gatazka- edo krisi-egoeran dauden (genero-indarkeria jasateko arriskua barne) emakumeen eta haurren behar espezifikoak irtenbide egokiak emango zaizkiela bermatzeko neurriei;

k) laguntza ematea gatazka armatuetako biktimen errehabilitazioari eta gizarteratzeari, emakumeen eta haurren behar espezifikoak lantzerantz bideratutako neurriak barne;

l) laguntza ematea giza eskubideen eta oinarritzko eskubideen, demokraziaren eta zuzenbideko estatuaren eta horri lotutako nazioarteko tresnen errespetua sustatzeko eta defendatzeko neurriei;

m) laguntza ematea, krisi edo krisi hasiberri batean, baliabide naturaletara berdintasunez iritsi ahal izatea sustatzeko neurri sozioekonomikoei, bai eta horien kudeaketa garbia sustatzeko neurriei ere;

n) laguntza ematea, krisi edo krisi hasiberri batean, herritarren bat-bateko mugimenduen eraginari aurre egiteko neurri sozioekonomikoei, harrera ematen duten komunitateen beharrak betetzera bideratutako neurriak barne;

o) laguntza ematea gizarte zibilaren garapena eta antolakuntza eta horrek prozesu politikoan parte hartzea sustatzera bideratutako neurriei, prozesu horietan emakumeen parte-hartzea handitzeko neurriak eta komunikabide askeak, pluralistak eta profesionalak sustatzeko neurriak barne;

p) hondamendi naturalei edo gizakiak eragindako hondamendiei aurre egiteko neurriak eta osasun publikorako mehatxuei aurre egitekoak

bultzatzea, Erkidegoaren laguntza humanitariorik ez dagoenean, edo laguntza humanitario horren osagarri gisa.

3. Aurreneko paragrafoan aipatutako ohiz kanpoko eta ustekabeko egoeretan ere, Erkidegoak 2. paragrafoan ezarritako eremu espezifikoek espresuki barne hartzen ez duten laguntza tekniko eta finantzarioa eman ahal izango du. 6. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren eta honakoak betetzen dituzten aparteko laguntzarako neurrietara mugatuko da laguntza hori:

— 1. artikuluko 2. paragrafoa a) idatz-zatian aipatutako eremu orokorraren eta helburu espezifikoaren barnean sartzea,

— 6. artikuluko 2. paragrafoan zehaztutako tartera mugatzea horien iraupena, eta

— atzerri-laguntzarako Erkidegoko gainerako tresnek hautagarritzat jotzea, baina, 2. artikuluarri jarraiki, Erregelamendu honen bitartez aplikatu beharrekoak izatea krisi egoera bati edo krisi hasiberri bati erantzun azkarra emateko.

4. artikulua

Lankidetzarako baldintza egonkorren testuinguruko laguntza

1. artikuluko 2. paragrafoa b) idatz-zatian

Internet Explorer.Ink aipatutako helburu espezifikoak lortzeko, Erkidegoak laguntza tekniko eta finantzarioa emango du honako eremu hauetan:

1) legedirako eta ordena publikorako, herritarren segurtasunerako eta babeserako, garrantzi handiko azpiegiturarako eta osasun publikorako arriskuak

Laguntzak honakoak estaliko ditu:

a) legea betearazteko gaitasuna handitzea eta terrorismoaren eta delinkuentzia antolatuauren aurkako borrokan aritzen diren agintari juridiko eta administratiboen ahalmena handitzea. Azken esparru horretan sartuko dira pertsonen, drogen, su-armen eta lehegailuen legez kanpoko trafikoa eta legez kanpoko merkataritza aurre egiten diharduten agintariak eta igarotzearen kontrol eraginkorra egiten dutenak.

Lehentasuna emango zaio arazo horiek desagerrarazteko asmo politiko garbia erakutsi duten hirugarren herrialdeekiko eskualdearteko lankidetzari.

Eremu horretan hartzen diren neurriek arreta

berezia jarriko dute gobernantza onean, eta nazioarteko zuzenbidearekin bat etorriko dira, bereziki, giza eskubideei eta nazioarteko zuzenbide humanitarioarekin.

Terrorismoaren aurkako borrokan lan egiten duen agintaritzari emango zaion laguntzari dagokionez, lehentasuna emango zaie terrorismoaren aurkako legedia garatzera eta indartzera bideratutako neurriei, bai eta finantza-zuzenbidea, muga-zergen zuzenbidea eta immigrazioari buruzko legedia aplikatzera eta praktikan jartzera, eta legea betetzen dela bermatzeko nazioarteko prozedurak garatzera bideratutako neurriei ere. Drogen gaiarekin lotutako laguntzari dagokionez, behar adinako arreta jarriko da nazioarteko lankidetzan, eskaera, ekoizpena eta kalteak murrizteko jardunbide egokiak sustatzeko;

- b) nazioarteko garraiorako, energiarekin lotutako lanetarako eta garrantzi handia duten azpiegituretarako, bidaiari- eta salgai-garraioa eta energia-banaketa barne, mehatxuen aurka egiteko neurriei laguntza ematea.

Eremu horretan hartutako neurriek arreta berezia jarriko dute eskualdearteko lankidetzan eta nazioarteko estandarrak aplikatzean, arriskuari buruzko kontzientziazioaren, urrakortasunaren azterketaren eta larrialdietarako alertetarako eta ondorioen kudeaketarako prestakuntzaren alorretan;

- c) osasun publikorako bat-bateko mehatxuei erantzun egoki bat ematen laguntzea, hala nola, nazioartean eragin dezaketen epidemiei.

Arreta berezia jarriko da larrialdien planifikazioan, txertoen eta sendagaien izakinen kudeaketan, nazioarteko lankidetzan eta hautemate goiztiarrerako eta alertarako sistemetan.

- 2) Arrisku-murrizketa eta material edo eragile kimikoei, biologikoei, erradiologikoei eta nuklearrei buruzko prestakuntza

Laguntzak honakoak estaliko ditu:

- a) ikerketa zibilerako jarduerak sustatzea, defentsari lotutako ikerketaz gain, beste aukera bat eskaintzeko, eta lehenago armekin lotutako sektoreetan lan egin duten zientzialarien eta ingeniarien prestakuntza berria bultzatzea, bai eta horiei lana ematea ere;

- b) laguntza ematea segurtasun-jarduerak indartzeko neurriei honakoei dagokienez: material edo eragile sentikor kimikoak, biologikoak, erradiologikoak eta nuklearrak biltegitratzeko instalazio zibilei edo, ikerketa zibilerako programetan, material edo eragile

horien manipulazioari;

- c) Erkidegoaren garapenerako lankidetzaren politikaren eta horien helburuen esparruan, laguntza ematea azpiegitura zibilak ezartzeko eta azterketa zibil egokiak egiteko, armekin lotutako instalazioak eta kokalekuak ixteko, birmoldatzeko edo aldatzeko beharrezko direnak, horiek defentsa-programen parte izateari utzi diotela aitortzen denean;

- d) material edo eragile kimikoen, biologikoen, erradiologikoen eta nuklearren (bai eta horiek ekoizteko edo erabiltzeko behar den ekipamenduaren) trafikoaren kontrol eraginkorra areagotzen eta gauzatzen diharduten administrazioko agintari eskumendunen ahalmena indartzea, ebaluazio eta kontrol logistikorako ekipamendu berriak instalatzea barne;

- e) erabilera bikoitzeko produktuen esportazioaren kontrol eraginkorrak ezartzeko eta aplikatzeko esparru juridikoa eta erakunde-egiturak sortzea, eskualdeetako lankidetzarako neurriak barne;

- f) prestakuntzarako neurri zibil eraginkorrak lantzea, hondamendi naturaletarako, larrialdien plangintzarako, krisietan erantzuteko eta, ingurumen-istripu larriak gertatzen direnean esparru horretan, saneamendu-neurriak aplikatzeko gaitasunerako.

a), b), c) eta d) idatz-zatietan azaldutako neurriei dagokienez, arreta berezia jarriko da oraindik material horien izakinak dituzten eta horiek ugaltzeko arriskua duten eskualdeei edo herrialdeei emango zaien laguntzan.

- 3) Krisi-aurreko eta krisi-ondoko gaitasunetarako prestakuntza. Epe luzeko laguntza ematea nazioarteko, eskualdeetako eta azpieskualdeetako erakundeen eta gobernuko eta gobernuz kanpoko eragileen prestakuntzarako eta horien gaitasunak indartzeko, honakoan inguruan egiten dituzten ahaleginei dagokienez:

- a) detekzio goiztiarra, konfiantza ezartzea, bitartekotza eta berradiskidetzea eta komunitateen artean sortzen ari diren tirabiren trataera sustatzea;

- b) gatazka-ondoko eta hondamendi-ondoko suspertzearen hobekuntza.

Puntu honen baitan hartuko diren neurriek barne hartuko dituzte: jakintza-transferentzia, informazio-trukaketa, arriskuen/mehatxuen ebaluazioa, ikerketak eta azterketak, detekzio goiztiarrerako sistemak eta prestakuntza. Komeni bada, Erkidegoko lankidetzaren politikaren helburuekin bat datozen Nazio Batuen Bakea

Finkatzeko Batzordearen gomendioak aplikatzeko laguntza tekniko eta finantzarioa ere barne har dezaket.

II. TITULUA

APLIKAZIOA

5. artikulua

Aplikazio-eremu orokorra

Erregelamendu honen arabera Erkidegoko laguntza honako neurri hauen bitartez aplikatuko da:

- a) aparteko laguntza-neurriak eta aldi baterako erantzun-programak;
- b) herrialde anitzeko estrategia-dokumentuak, gaikako estrategia-dokumentuak eta urte askotarako programa indikatiboak;
- c) urteroko ekintzarako programak;
- d) neurri bereziak.

6. artikulua

Aparteko laguntza-neurriak eta aldi baterako erantzun-programak

1. Aparteko laguntza-neurrien eta aldi baterako erantzun-programen bitartez emango da 3. artikulua arabera Erkidegoko laguntza.
2. Batzordeak aparteko laguntza-neurriak hartu ahal izango ditu 3. artikuluko 1. paragrafoan aipatutakoa bezalako krisi-egoera bat baldin badago, edo 3. artikuluko 3. paragrafoan aipatutakoak bezalako ohiz kanpoko eta ustekabeko egoeretan, neurriak eraginkorrak izateko, azkar eta malgutasunez aplikatu behar direnean. Neurri horien iraupena 18 hilabetekoa izango da gehienez. Banakako neurrien iraupena sei hilabetez luzatu ahal izango da horiek aplikatzeko oztipo objektiboak eta ustekabekoak badaude, betiere, neurriaren finantzazko zenbatekoa handiagotu gabe.
3. Aparteko laguntza-neurri baten kostua 20 000 000 EURO baino gehiagokoa bada, neurri hori onartzeko, 22. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozedura jarraituko da.
4. Batzordeak aldi baterako erantzun-programak onartu ahal izango ditu Erkidegoko atzerri-lankidetzarako politikak eraginkortasunez aplikatzea ahalbidetzen duten oinarritzko baldintzak ezartzeko edo berrezartzeko. Aldi baterako erantzun-programak aparteko laguntza-neurrietan oinarrituko dira. 22. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozedurari jarraiki

onartuko dira.

5. Aldizka, 3. artikulua arabera aurreikusitako Erkidegoko laguntzaren plangintzaren berri emango dio Batzordeak Kontseiluari. Bai plangintzan, bai eta neurri horiek aplikatzerakoan ere, kontuan izan beharko du dagokion Kontseiluaren ikuspegi politikoa, EBren atzerri-ekintzaren koherentzia mantentzeko.

Era berean, Batzordeak Kontseiluari jakinaraziko dio onartutako aparteko laguntza-neurrietan aldaketa garrantzitsuak egin aurretik.

6. Aparteko laguntza-neurriak onartu eta ahal bezain laster, eta, edonola ere, neurria onartu eta zazpi hilabete igaro aurretik, Batzordeak horren berri emango die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari, dagoen eta aurreikusten den Erkidegoko erantzunaren deskribapena eginez. Deskribapen horretan honakoak barne hartuko dira: Erkidegoko beste finantza-tresna batzuen bitartez emandako laguntza, herrialde bakoitzeko eta herrialde anitzeko estrategia-dokumentuen egoera, eta Erkidegoaren papera nazioarteko eta alderdi anitzeko erantzun zabalago baten esparruan. Era berean, txosten horretan adieraziko da Batzordeak aparteko neurriekin jarraitzeko asmorik baduen edo ez, eta, baiezkoa bada, zenbat denboraz.

7. artikulua

Herrialde anitzeko estrategia-dokumentuak, gaikako estrategia-dokumentuak eta urte askotarako programa indikatiboak

1. Herrialde anitzeko eta gaikako estrategia dokumentuak izango dira 4. artikulua arabera laguntza gauzatzeko oinarri orokorra.
2. Herrialde anitzeko eta gaikako estrategia dokumentuek azalduko dute Erkidegoaren estrategia dagozkion herrialdeetarako eta gaietarako, herrialde horien beharrak, Erkidegoaren lehentasunak, nazioarteko egoera eta bazkide nagusien jarduerak kontuan hartuz.
3. Herrialde anitzeko eta gaikako estrategia dokumentuak onartzeko, bai eta horien berritzeak eta zabaltzeak ere, 22. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozedura jarraituko da. Erregelamendu honen aplikazio-aldia baino motzagoa izango den hasierako aldi bat estaliko dute, eta gauzatze-aldiaren erdia pasa denean berrikusiko dira.
4. Estrategia-dokumentuek koherentzia izango dute Erkidegoko atzerri-laguntzarako beste tresna batzuen esparruan onartutako herrialdeko, herrialde anitzeko edo gaikako laguntza-

dokumentuekin, eta ez da bikoizketarik egongo. Komeni denean, bazkide interesdunen herrialdearekin, herrialdeekin edo eskualdearekin ezarritako elkarrizketan oinarrituko dira estrategia-dokumentuak. Elkarrizketa horretan parte hartuko du, baita ere, sozietate zibilak, nazioko garapen-estrategiak bultzatzeko eta bazkide d(ir)en herrialdearen/herrialdeen edo eskualdearen parte-hartzea bermatzeko. Kontsulta bateratuak egingo dira, gainera, Batzordearen, estatu kideen eta, dagokionean, beste funts-hornitzaile batzuen artean, Erkidegoko lankidetzajarduerak estatu kideetakoekin eta beste funts-hornitzaileenekin osagarriak direla bermatzeko. Hala komeni dela irizten bada, beste interesdun batzuek ere parte hartu ahal izango dute.

5. Herrialde anitzeko estrategia-dokumentuekin batera aurkeztuko da, hala dagokionean, urte askotarako programa indikatibo bat. Programa horrek laburbilduko ditu Erkidegoko finantzaketa jasotzeko aukeratutako lehenetsuneko esparruak, helburu espezifikoak, aurreikusitako emaitzak eta Erkidegoko laguntzaren egutegia, bai eta zenbateko finantzario indikatiboa, osotarikoa eta lehenetsuneko esparru bakoitzerakoa. Behar denean, finantzazko zenbatekoak tarteka adieraziko dira.

6. Urte askotarako programa indikatiboek zehaztuko dituzte programa bakoitzerako finantzazko zenbatekoak. Horretarako, herrialde edo eskualde bazkide interesdunen beharretan eta emaitzetan oinarritutako irizpide gardenak erabiliko dituzte, eta kontuan hartuko dituzte krisi- edo gatazka-egoeran dauden herrialdeek edo eskualdeek bizi dituzten zailtasun konkretuak.

7. Urte askotarako programa indikatiboak onartzerakoan, bai eta horien berritzeak eta zabaltzeak ere, 22. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozedura jarraituko da. Komeni denean, herrialde edo eskualde bazkide interesdunei kontsulta egingo zaie horiek ezartzeko.

8. Urte askotarako programa indikatiboan finantzazko zenbatekoak handiagotu edo murriztu egin ahal izango dira berritzeen ondorioz; betiere, dagokion herrialdeko egoeran, emaitzetan eta beharretan gertatu diren aldaketak kontuan hartuz, 7. paragrafoan aipatutako prozedurari jarraiki.

8. artikulua

Urteroko ekintza-programak

1. Urteroko ekintza-programek azalduko dute zer neurri hartu behar diren 7. artikuluan aipatutako herrialde anitzeko eta gaikako estrategia-

dokumentuetan eta urte askotarako programa indikatiboetan oinarrituta.

2. Urteroko ekintza-programek zehaztuko dituzte helburuak, esku hartzeko eremuak, aurreikusitako emaitzak, kudeaketa-prozedurak eta aurreikusitako finantzaketaren guztirako zenbatekoa. Gainera, honakoak ere barne hartuko dituzte: finantzatu egin behar diren lanen deskribapen labur bat, lan bakoitzari esleitutako zenbatekoak eta gutxi gorabeherako gauzatze-egutegi bat. Komeni bada, aurretik emandako laguntzaren bitartez eskuratutako esperientziaren emaitzak ere sartuko dira horietan. Helburuak neurgarriak izango dira.

3. Urteroko ekintza-planak onartzerakoan, bai eta horien berritzeak eta zabaltzeak ere, 22. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozedura jarraituko da.

9. artikulua

Neurri bereziak

1. 7. eta 8. artikuluetan esandakoa esanda ere, ezusteko behar edo egoerak gertatzen badira, Erkidegoak neurri bereziak har ditzake, 7. artikuluan aipatutako herrialde anitzeko edo gaikako estrategia-dokumentuetan edo urte askotarako programa indikatiboetan azaltzen ez direnak, ez eta 8. artikuluan aipatzen diren urteroko ekintza-programetan ere.

2. Neurri bereziek zehaztuko dituzte helburuak, esku-hartzerako eremuak, aurreikusitako emaitzak, kudeaketa-prozedurak eta aurreikusitako finantzaketaren guztirako zenbatekoa. Gainera, honakoak ere barne hartuko dituzte: finantzatu egin behar diren lanen deskribapen labur bat, lan bakoitzari esleitutako zenbatekoak eta gutxi gorabeherako gauzatze-egutegi bat.

3. Neurri berezi baten kostua 5 000 000 EURO baino gehiagokoa bada, neurri hori onartzeko 22. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozedura jarraituko da.

4. Neurri berezi baten kostua 5 000 000 EURO baino gutxiagokoa bada, neurria onartu eta hilabeteko epean, Batzordeak horren berri emango dio 22. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki eratutako Lantaldeari.

III. TITULUA

ONURADUNAK ETA FINANTZAKETA-MODUAK

10. artikulua

Finantzaketa jasotzeko aukera

1. Erregelamendu honen baitan, 6. artikuluan adierazitako aparteko laguntza-neurriak eta aldi baterako erantzun-programak, 8. artikuluan adierazitako urteroko ekintza-programak eta 9. artikuluan adierazitako neurri bereziak gauzatzeko, finantzaketa jasotzeko aukera izango dute:
- a) bazkide diren herrialdeek eta eskualdeek eta horietako erakundeek;
 - b) bazkide diren herrialdeetako erakunde deszentralizatuak, hala nola, eskualdeek, sailek, probintziek eta udalerriek;
 - c) bazkide diren herrialde eta eskualdeek eta Erkidegoak eraturako erakunde mistoak;
 - d) nazioarteko erakundeek, eta horien artean aurkitzen dira: eskualdeetako antolakuntzak, Nazio Batuen sistemako erakundeak, zerbitzuak edo misioak, nazioarteko finantza-erakundeak eta nazioarteko jurisdikzioa duten garapen-bankuak eta erakundeak, betiere, Erregelamendu honetako helburuak lortzen laguntzen badute;
 - e) Europako agentziek;
 - f) estatu kideetako, bazkide diren herrialdeetako eta eskualdeetako edo beste hirugarren estatu bateko honako erakunde hauek, betiere, Erregelamendu honetako helburuak lortzen laguntzen badute:
 - i) erakunde publiko edo erdipublikoek, agintariek edo tokiko administrazioek eta horien partzuergoek,
 - ii) elkarte, enpresa eta gainerako erakunde eta eragile ekonomiko pribatuak,
 - iii) bazkide diren herrialdeetan eta eskualdeetan inbertsio pribatuak ematen, sustatzen eta finantzatzen dituzten finantza-erakundeak,
 - iv) 2. paragrafoan aipatzen diren eragile ez-estataleak,
 - v) pertsona fisikoak.
2. Erregelamendu honi jarraiki finantza-laguntza jaso ahal izango duten eragile ez-estatalen artean, honako hauek nabarmentzen dira:
governuz kanpoko erakundeak, biztanleria autoktonoen erakundeak, tokiko langile- eta ekimen- taldeak, kooperatibak, sindikatuak, eragile

ekonomikoak eta sozialak ordezkatzeko dituzten erakundeak, lankidetzaren eta integrazioaren eremuan lan egiten duten tokiko erakundeak (sareak barne), eskualdekoak eta deszentralizatuak, kontsumitzaileen erakundeak, emakumeen edo gazteen antolakuntzak, hezkuntza-, kultura-, ikerketa- eta zientzia-erakundeak, unibertsitateak, elizak eta elkarte edo komunitate erlijiosoak, komunikabideak eta governuz kanpoko edozein elkarte eta fundazio publiko eta pribatu, barne-politiken kanpo-dimentsioa garatzen lagun dezaketenak.

3. 1. eta 2. paragrafoetan adierazten ez diren erakundeak edo eragileak finantzatu ahal izango dira, Erregelamendu honetako helburuak lortzeko beharrezkoa denean.

11. artikulua

Neurri-motak

1. Erkidegoko finantzaketak honako forma hauek har ditzake:

- a) proiektuak eta programak;
- b) sektore-aurrekonturako edo aurrekontu orokorrerako laguntza, bazkide den estatuko funts publikoen kudeaketa behar bezain gardena, fidagarria eta eraginkorra denean, eta ongi zehaztutako sektore- edo makroekonomia-politikak daudenean, bazkide den estatuak ezarritakoak eta bere funts-hornitzaile nagusiek onartutakoak, dagokionean, nazioarteko finantza-erakundeak barne hartuz. Oro har, aurrekonturako laguntza beste tresna batzuekin batera emango da. Helburu zehatzekin eta ebaluazio-irizpide espezifikoekin esleituko da. Aurrekonturako laguntza jasotzeko, nahitaezko baldintza izango da helburuak lortzeko aurrerapen garrantzitsuak egitea, eraginari eta emaitzei dagokienez;
- c) ohiz kanpoko egoeretan, inportazioetarako sektorekako programak edo programa orokorrak, honela gauzatu daitezkeenak:
 - i) gauzako inportazioen sektorekako programak,
 - ii) dibisazko laguntzako inportazioen sektorekako programak sektorekako inportazioak finantzatzeko, edo
 - iii) dibisazko laguntzako inportazioen programa orokorrak hainbat salgaien inportazio orokorra finantzatzeko;
- d) finantza-bitartekarien eskura jarritako funtsak, 20. artikuluari jarraiki, maileguak (bereziki, sektore pribatuko inbertsioak eta garapena bultzatzeko) edo arrisku-kapitala (bereziki,

baldintzazko maileguak) emateko, edota enpresa kapitalen partaidetza minoritarioen eta aldi baterako enrosketa, betiere, Erkidegoaren finantza-arriskua funts horietara mugatzen bada;

- e) neurriak finantzatzera bideratutako diru-laguntzak;
 - f) funtzionamendu-kosteak finantzatzera bideratutako diru-laguntzak;
 - g) senidetze-programen finantzaketa erakunde publikoen, erakunde publiko nazionalen eta zuzenbide pribatuko erakundeen artean, azken horiei estatu kideek eta bazkide diren herrialdeek eta eskualdeek zerbitzu publikoko misioak ematen badizkiete;
 - h) nazioarteko funtsei laguntzea, bereziki, nazioarteko edo eskualdeko erakundeek administratzen dituztenei;
 - i) nazioarteko funtsei laguntzea, bazkide diren herrialde eta eskualdeetan ezarriak, funts-hornitzaile batzuen arteko lagundutako finantzatzek errazteko, edo funts-hornitzaile batek edo batzuek ezarritako funtsei laguntzea, ekintza batera gauzatzeko;
 - j) herrialde eta eskualde bazkideek proiektuak eta programak administratu eta ikuskatu ahal izateko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak.
2. Erkidegoko finantzaketa, hasiera batean, ez da erabiliko herrialde onuradunetan zergak, eskubideak edo kargak ordaintzeko.
3. 1996/1257/EE Erregelamenduak estaltzen dituen jarduerak, eta horri jarraiki laguntza jaso dezaketenak, ezingo dira Erregelamendu honen arabera finantzatu.

12. artikulua

Laguntza-neurriak

1. Erregelamendu hau aplikatzeko eta bere helburuak lortzeko beharrezko diren prestaketa-, jarraipen-, kontrol-, auditoria- eta ebaluazio-ekintzetatik eratorritako gastuak Erkidegoko finantzaketarekin estali ahal izango dira. Erregelamendu honen esparruan finantzatutako ekintzen kudeaketa bermatzeko Batzordearen delegazioetako administrazio-laguntzako gastuak ere Erkidegoko finantzaketarekin ordaindu ahal izango dira.
2. Laguntzak finantzatu ahal izango dira urte askotarako programa indikatiboen aplikazio-

eremutik kanpo. Batzordeak 9. artikuluari jarraituko dio laguntza-neurri horiek hartzeko.

13. artikulua

Lagundutako finantzatzek

1. Erregelamendu honen eremuan finantzatutako neurriek lagundutako finantzaketa jaso ahal izango dute, beste batzuen artean, honako hauengandik:
 - a) estatu kideak eta horietako erakunde publiko eta erdipublikoak;
 - b) funts-hornitzaile diren beste herrialde batzuk eta, bereziki, horietako erakunde publikoak eta erdipublikoak;
 - c) nazioarteko erakundeak, eskualdeetakoak barne, eta, bereziki, nazioarteko eta eskualdeetako finantza-erakundeak;
 - d) elkarteak, enpresak eta beste erakunde eta eragile ekonomiko pribatu batzuk, eta 10. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako agente ez-estatalak;
 - e) funtsen onuradun diren herrialde edo eskualde bazkideak eta 10. artikuluan aipatutako finantzaketa jaso dezaketen erakundeak.
2. Lagundutako finantzatzeko paraleloari dagokionez, garbi bereiz daitezkeen azpi-proiektuetan banatuko da proiektua edo programa. Horietako bakoitza lagundutako finantzatzeko bermatzen duten bazkideek finantzatzeko dute eta, era horretan, beti jakin ahal izango da finantzaketa nora bideratzen den. Lagundutako finantzatzeko bateratuaren erregimenean, lagundutako finantzatzeko parte hartzen duten bazkideek banatu egingo dituzte proiektuaren edo programaren guztirako kostuari egin beharreko ekarpenak, eta emandako funts guztiak batera jarriko dira; ondorioz, ezingo da jakin proiektuko edo programako jardura espezifikoetarako finantzaketa nondik datorren.
3. Lagundutako finantzatzeko bateratuari dagokionez, Batzordeak funtsak jaso eta administratu ahal izango ditu 1. paragrafoa a), b) eta c) idatz-zatietan aipatutako erakundeen izenean, ekintza bateratuak egiteko. Egoera horretan, Batzordeak martxan jarriko ditu ekintza bateratu horiek modu zentralizatuan zuzenean, edo, zeharka, lan hori Erkidegoko agentzietan edo Erkidegoek sortutako erakundeetan delegatuz. 2002/1605 Erregelamenduaren (EE, Euratom), Kontseiluarenaren, 2002ko ekainaren 25ekoaren, Europako Erkidegoetako

aurrekontu orokorreari aplikagarria den finantzazko Erregelamendua onartzen duenaren 18. artikuluari jarraiki esleitutako diru-sarrerei emandako trataera bera emango zaie funts horiei ⁽¹⁾.

14. artikulua

Kudeaketa-prozedurak

1. Erregelamendu honen arabera finantzatutako neurrien kudeaketarako, kontrolerako, ebaluaketarako eta txostenetarako, 2002/1605 Erregelamenduaren (EE, Euratom) xedapenak jarraituko dira.

2. Batzordeak erabaki ahal izango du agintaritza publikoko lan jakin batzuk, aurrekontu-gauzatzeari dagozkionak bereziki, 2002/1605 Erregelamenduko (EE, Euratom) 54. artikuluko 2. paragrafoko c) idatz-zatian aipatutako erakundeen eskuetan uztea, betiere, erakunde horiek nazioartekoak direla onartzen bada, nazioartean onartutako kudeaketa- eta kontrol-sistemetara egokitzen badira eta agintari publiko batek ikuskatzen baditu.

3. Zentralizatu gabeko kudeaketari dagokionez, Batzordeak erabaki ahal izango du kontratazio publikoko prozeduretara jo edo herrialde edo eskualde bazkide onuradunaren diru-laguntzak emateko prozeduretara.

15. artikulua

Aurrekontu-konpromisoak

1. Aurrekontu-konpromisoak gauzatzeko Batzordeak 6., 8., 9. eta 12. artikuluetan xedatutakoari jarraiki hartutako erabakiak izango dira oinarri.

2. Erkidegoko finantzaketek honako forma juridiko hauek hartuko dituzte funtsean:

- finantzaketa-hitzarmenak,
- diru-laguntzarako hitzarmenak,
- kontratu publikoak,
- lan-kontratuak.

16. artikulua

Erkidegoaren finantza-interesak babestea

1. Erregelamendu honetatik eratorritako akordio guztiek Erkidegoaren finantza-interesen babesa bermatzeko xedapenak barne hartuko dituzte,

¹ L 248 EO, 2002.9.16koa, 1. or

bereziki, iruzurrari, ustelkeri eta legez kanpoko jarduerari dagokienez, honako arau hauei jarraiki: 1995/2988 Erregelamendua (EE, Euratom), Kontseiluarena, 1995eko abenduaren 18koa, Europako Erkidegoen finantza-interesak babesteari buruzkoa ⁽²⁾, 1996/2185 Erregelamendua (Euratom, EE), Kontseiluarena, 1996ko azaroaren 11koa, Europako Erkidegoetako finantza-interesak iruzurrengandik eta irregulartasunengandik babesteko Batzordeak *in situ* egiten dituen kontrolei eta ziurtapenei buruzkoa ⁽³⁾, 1999/1073 Erregelamendua (EE), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 1999ko maiatzaren 25ekoa, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren (OLAF) ikerketei buruzkoa ⁽⁴⁾.

2. 1. paragrafoan aipatutako akordioek espresuki ezarriko dute Batzordearen eta Kontuen Auzitegiaren ahalmena Erkidegoko funtsak jaso dituzten kontratista eta azpi-kontratista guztiei auditoriak egiteko, dokumentuetan oinarrituta eta *in situ*. Gainera, Batzordeari baimena eman beharko diote esplizituki kontrolak eta ikuskapenak *in situ* egiteko 1996/2185 Erregelamenduaren (Euratom, EE) xedapenei jarraiki.

3. Laguntza gauzatzetik sortutako kontratuek bermatuko dute Batzordea eta Kontu Auzitegia 2. paragrafoan aipatutako eskubideaz baliatzen direla, kontratuak gauzatzen diren bitartean eta ondoren.

17. artikulua

Parte-hartzea eta jatorri-arauak

1. Erregelamendu honen eremuko kontratazio publikoko prozeduretan eta diru-laguntzak emateko prozeduretan parte hartu ahal izango du estatu kideetako edozein pertsona fisiko edo juridikok.

2. Erregelamendu honen eremuko kontratazio publikoko prozeduretan eta diru-laguntzak emateko prozeduretan parte hartu ahal izango dute, baita honako leku hauetako pertsona fisikoek edo juridikoek ere:

- aurretxikitze laguntzarako tresnaren onuradun diren herrialdeetakoek ⁽⁵⁾,
- EBkoak ez diren eta Europako Ekonomi

² L 312 EO, 1995.12.23koa, 1. or.

³ L 292 EO, 1996.11.15ekoa, 2. or

⁴ L 136 EO, 1999.5.31koa, 1. or

⁵ 2006/1085/EE Erregelamendua, Kontseiluarena, 2006ko uztailaren 17koa, aurretxikitze laguntzarako tresna bat ezartzen duena (L 210 EO, 2006.7.31koa, 82. or.)

Esparrukoak diren herrialdeetakoek,

— beste edozein herrialdeetakoek edo lurraldeetakoek, atzerri-laguntzarako elkarrenganako aukera badago.

3. ELGAK ezarritako irizpideen arabera aurrerapen txikikotzat jotzen diren herrialdeetan neurriak hartuko badira, kontratazio publikoko prozeduretako eta diru-laguntzak emateko prozeduretako parte-hartzea irekita egongo da globalki.

4. 6. artikuluan adierazitako aparteko laguntza-neurriak eta aldi baterako erantzun-programak prestatzean, kontratazio publikoko prozeduretako eta diru-laguntzak emateko prozeduretako parte-hartzea irekita egongo da globalki.

5. 4. artikuluan azaldutako helburuak lortzeko hartutako neurriei dagokienez, kontratazio publikoko prozeduretako eta diru-laguntzak emateko prozeduretako parte-hartzea irekita egongo da, eta, ELGAK ezarritako irizpideen arabera, garapen bidean edo trantsizioan dauden herrialdeetako pertsona fisiko eta juridiko guztiak barne hartuko dituzte jatorri-arauek, bai eta dagokion strategiaren arabera aukeragarri den beste edozein herrialdeetako ere.

6. Erregelamendu honen eremuko kontratazio publikoko prozeduretan eta diru-laguntzak emateko prozeduretan parte hartu ahal izango dute nazioarteko erakundeek.

7. Kontratazio-prozeduren eremuan proposatutako adituek ez dituzte bete beharko artikuluko honetan adierazitako nazionalitate-arauek.

8. Erregelamendu honen eremuan finantzatutako kontratuen babesera erositako hornidura eta material guztiak Erkidegokoak izango dira, edo 2.etik 5.era bitarteko paragrafoei jarraiki aukeragarri diren herrialdeetakoak.

9. Herrialde bazkidearekin lotura ekonomikoak, merkataritzazkoak edo geografikoak dituzten hirugarren herrialdeetako edo lurraldeetako pertsona fisikoen eta juridikoen parte-hartzea baimendu edo ez aztertuko da kasu bakoitzean. Halere, behar bezala arrazoitu bada, Batzordeak baimendu ahal izango du beste herrialde batzuetako pertsona fisikoen eta juridikoen parte-hartzea, edo beste herrialde batetik datozen hornidurak eta materialak erabiltzea.

18. artikulua

Aurrefinantzaketa

Aurrefinantzaketari dagokionez, onuradunen eskura jarritako zenbatekoek sortutako interesak

azkeneko ordainketatik deduzituko dira.

19. artikulua

Diru-laguntzak

2002/1605 Erregelamenduaren (EE; Euratom) 114. artikuluari jarraiki, pertsona fisikoek diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte.

20. artikulua

Europako Inbertsio Bankuaren edo beste finantza-bitartekari batzuen eskura dauden funtsak

Finantza-bitartekariak, Europako Inbertsio Bankuak (aurrerantzean “EIB”) edo horretarako gaitasuna duen beste edozein bankuk edo erakundeak administratuko ditu 11. artikuluko 1. paragrafoko d) idatz-zatian adierazitako funtsak. Batzordeak ezarriko ditu kasu bakoitzean artikuluko honetako aplikazio-xedapenak honakoei dagokienez: arrisku-banaketari, funtsak sorrarazitako interesak aplikatzeaz, erabiltzeaz eta berreskuratzeaz arduratzen den bitartekariaren ordainketari eta eragiketa ixteko baldintzei.

21. artikulua

Ebaluazioa

Batzordeak ebaluatuko ditu, aldizka, politiken eta programen emaitzak eta eraginkortasuna eta programazioaren eraginkortasuna, helburuak lortu ote diren jakiteko eta etorkizuneko eragiketarako hobetzeko gomendioak egiteko.

Batzordeak txostenak igorriko dizkio 22. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki eraturako Lantaldeari, azken horrek eztabaida ditzan. Emaitza horiek kontuan hartuko dira programak diseinatzerakoan eta baliabideak esleitzerakoan.

IV. TITULUA

AZKEN XEDAPENAK

22. artikulua

Lantaldea

1. Batzordeak Lantalde baten laguntza izango du.

2. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 4. eta 7. artikuluko izango dira aplikatzeokoak.

1999/468/EE Erabakiaren 4. artikuluko 3. paragrafoan jasotako epea 30 egunekoa izango da.

3. Lantaldeak bere barne araudia onartuko du.

4. EIBko behatzaile batek parte hartuko du bileretan Bankuarekin lotutako gaietarako dagokienez.

23. artikulua

Txostena

Batzordeak aztertuko ditu Erregelamendu honi jarraiki hartutako neurrien aplikazioan egindako aurrerapenak, eta laguntzaren gauzatzeari buruzko urteroko txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari. Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Komiteari ere aurkeztuko zaie txostena. Txostenak aurreko urteari buruzko honako informazio hauek barne hartuko ditu: finantzatutako neurriei buruzko informazioa, kontrol- eta ebaluazio-jardueren emaitzak eta aurrekontu-gauzatzea, konpromisoak eta ordainketei dagokienez, herrialdeka, eskualdeka eta lankidetzaren eremura banakaturak.

24. artikulua

Finantza-zuzkidura

Erregelamendu hau aplikatzeko finantza-zuzkidura 2 062 000 000 EURkoa izango da 2007-2013 tartetarako.

Aurrekontu Agintaritzak baimenduko ditu urteroko kredituak, finantza-esparruarekin bat etorriz.

2007-2013 denbora-tartean:

- a) 4. artikuluko 1. puntuaren esparruaren barnean dauden neurriei, gehienez ere, finantza-zuzkiduraren 7 puntu portzentual esleituko zaizkie;
- b) 4. artikuluko 2. puntuaren esparruaren barnean dauden neurriei, gehienez ere, finantza-zuzkiduraren 15 puntu portzentual esleituko zaizkie;
- c) 4. artikuluko 3. puntuaren esparruaren barnean dauden neurriei, gehienez ere, finantza-zuzkiduraren 5 puntu portzentual esleituko zaizkie;

25. artikulua

Aldaketa

Beranduenik ere, 2010eko abenduaren 31n, Batzordeak ebaluazio-txosten bat aurkeztuko die Europako Parlamentuari eta Kontseiluari Erregelamendu honen lehenengo hiru urteetako aplikazioari buruz, eta, dagokionean, Erregelamendua aldatzeko proposamen bat ere aurkeztuko du horrekin batera.

26. artikulua

Indargabetzea

1. 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera, honako erregelamendu hauek indargabetuko dira:

— 2001/2130/EE Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2001eko urriaren 29koa, Latinoamerikako eta Asiako deserrotutako biztanleriei laguntzeko ekintzei buruzkoa ⁽¹⁾,

— 2001/1725/EE Erregelamendua, Kontseiluarena, 2001eko uztailaren 23koa, garapen bidean dauden ez diren hirugarren herrialdeetako pertsonen kontrako lurreko minen kontrako ekintzei buruzkoa ⁽²⁾,

— 2001/1724/EE Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2001eko uztailaren 23koa, garapen bidean dauden herrialdeetako pertsonen kontrako lurreko minen kontrako ekintzei buruzkoa ⁽³⁾,

— Kontseiluaren 2001/381/EE Erregelamendua, 2001eko otsailaren 26koa, bizkor erreakzionatzeko mekanismo bat eratzen duena ⁽⁴⁾,

— 2000/1080/EE Erregelamendua, Kontseiluarena, 2000ko maiatzaren 22koa, Nazio Batuen Erakundeko Kosovorako Aldi Baterako Administrazioarako Misioari (UNMIK) eta Bosnia eta Hertzeogovinako Goi Ordezkararen bulegoari (OHR) laguntzeari buruzkoa ⁽⁵⁾, horren 1. bis artikulua izan ezik,

— 1997/2046/EE Erregelamendua, Kontseiluarena, 1997ko urriaren 13koa, drogen eta droga-mendekotasunen aurkako borrokan iparraldearen eta hegoaldearen arteko lankidetzari buruzkoa ⁽⁶⁾,

— 1996/2258/EE Erregelamendua, Kontseiluarena, 1996ko azaroaren 22koa, garapen bidean dauden herrialdeetako birgaitze- eta berreraikitze-ekintzei buruzkoa ⁽⁷⁾.

2. Indargabetutako Erregelamenduak aplikagarriak izaten jarraituko dute 2007 baino lehenagoko ekitaldietako gauzatzeekin lotutako egintza

¹ L 287 EO, 2001.10.31koa, 3. or.

² L 234 EO, 2001.9.1ekoa, 6. or.

³ L 234 EO, 2001.9.1ekoa, 1. or.

⁴ L 57 EO, 2001.2.27koa, 5. or.

⁵ L 122 EO, 2000.5.24koa, 27. or.

⁶ L 287 EO, 1997.10.21ekoa, 1. or.

⁷ L 306 EO, 1996.11.28koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

juridikoentzat eta konpromisoentzat.

27. artikulua

Indarrean jartzea

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit egunera jarriko da indarrean Erregelamendu hau.

2007ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra arte aplikatuko da.

Erregelamendu honetako atal guztiak nahitaez bete beharrekoak dira, eta Estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon egin, 2006ko azaroaren 15ean.

Europako Parlamentuaren izenean,
Lehendakaria J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean
Lehendakaria P. LEHTOMÄKI